



2024ko SANFERMINETAKO KARTEL LEHIAKETA

Iruñeko Udalak 2024ko SANFERMINETAKO KARTEL LEHIAKETARAKO deia egin du, norgehiagokako araubidean, Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak (2006ko 21. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua, otsailaren 17koan) xedatzen duenarekin bat.

1.- XEDEA

2024ko SANFERMINETAKO KARTEL LEHIAKETA: Aurten sanferminak iragarriko dituen kartel ofiziala hautatzea da lehiaketa honen xedea.

2.- SARI-MODALITATEAK.-

Honako sari-modalitate hauek ezarri dira:

6.000 euroko sari bakarra, eskudirutan, irabazle hautatutako kartelarendako.

3.- DIRU-ZUZKIDURA.-

Deialdi honi, gehienez ere, 6.000 euro esleituko zaizkio sarietarako, Udalaren Aurrekontuko honako partida honen kargura: 50/33800/480000

Sari hau ezarri da, modalitate bakoitzerako, 2. klausulan adierazitakoaren arabera:

6.000 euroko sari bakarra. Diru kopuru horri PFEZ dela-eta dagokion atxikipena aplikatuko zaio.

4.- HAUTAGAIEN BETEKIZUNAK.-

Lehiaketan honako hauek parte hartzen ahalko dute: Parte-hartze librea.

Egile edo kolektibo bakoitzak kartel bakarra aurkezten ahalko du, betiere pertsona fisikoak badira.

Ezin izanen dute parte hartu lehiaketaren aurreko edizioetan finalisten artean hautatutako obrek.

Oinarriak ez betetzeagatik baztertu eta zehatu diren pertsonak ezin izanen dira lehiaketara aurkeztu harik eta zehapen-aldia igaro arte.

Lehiaketa honen instrukzio-organoaren erantzukizuna izanen da parte-hartzaileei eragiten dieten zehapenak egiaztatzea eta organo emaileari baztertzeko proposamena igortzea, horietako batek parte hartu ezin duela egiaztatzen duenean.

Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan xedatutakoarekin bat, laguntza hauen izaera berezia dela-eta onuradunei aplikagarri zaizkie arau horretan ezarritako debekuak.



5.- ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK, ZEIN EPETAN ETA NON.-

LEHIAKETA HONETAN PARTE HARTZEKO ETA KARTELAK AURKEZTEKO IZEN-EMATEA SOILIK TELEMATIKOKI EGINEN DA.

PARTE-HARTZAILEEK KARTEL-PROPOSAMENA ETA PARTE HARTZEKO DATUAK AURKEZTU BEHARKO DITUZTE HORRETARAKO PRESTATUTAKO FORMULARIOA BETEZ.

Parte hartzeko eskaera helbide honetara bideratuko da:

WEBGUNEAK: www.pamplonaescultura.es/eu.

Webgunearen hasierako orrian bertan, esteka bat gaituko da Sanferminetako Kartel Lehiaketa izenburuz, eta haren bidez zuzenean sartzen ahalko da izena emateko formularioan eta, gainera, oinarriak kontsultatu.

Formularioa hiru hizkuntzatan betetzen ahalko da: euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Formularioan, parte-hartzaileek datu pertsonal guztiak bete beharko dituzte eta kartelaren irudia duen artxibo bat igoko dute, JPG formatuan (Neurriak: 820 x 1171 pixel. Pisua gehienez: 2 MB).

Kartelak jatorrizkoa eta argitaratu gabea izan beharko du, eta teknika librekoa. Ez da osorik ez eskusiboki adimen artifizialaren bidez sortua izanen. Aurkeztutako artxibo digitala hartuko da azken obratzat, eta behin bidaltuta ezin izanen da aldatu lehiaketaren ezein unetan. Artxiboak duen irudia izanen da epaimahaiak baloratuko duena.

Kontuan hartu beharko da hautatutako kartelak jendaurrean paratzeko 1000 mm x 700 mm formatuan (BERTIKALEAN) inprimatuko direla.

Kartelean nahitaez agertuko dira honako elementu hauek: testuak eta hiriaren armarrria.

Obran duten kokapena librea izanen da.

TESTUAK:

Testua irakurgarria izanen da, eta beraz, erabilitako tamainak zein tipografiak ongi irakurtzea erraztu behar dute.

Hona hemen sartu beharreko testuak:

- o San Fermín
- o 2024
- o Pamplona/Iruña
- o Del 6 al 14 de julio/Uztailaren 6tik 14ra

Bai "Pamplona/Iruña" bai "Del 6 al 14 de julio/Uztailaren 6tik 14ra" banatuta egon daitezke edo/eta lerro ezberdinetan, baina neurri berekoak izan beharko dute. Banatuta edo modu ez ortografikoan bereizita aurkezten badira, ez da barra etzana zeinu ortografikoa jarri beharko.

Hitz edo hizkuntza desberdinetarako kolore desberdinak erabiltzen ahalko dira, baina, nolanahi ere, bien irakurketa antzekoa izatea bermatu beharko da.

IRUÑEKO ARMARRRIA:

Kartelak hiriaren armarrria eduki behar du. Armarrria jartzen ahal da Iruñeko Udalak bere logotipo ofizialean erabiltzen duen bezala (koloretako aldaera edo kolore bakarrekoa), harekin batera



doan legendarik gabe. Diseinu hau erabili nahi bada, honako esteka honetan deskargatzen ahal da:

<https://www.pamplonaescultura.es/eu/escudos-de-pamplona/>

Aitzitik, kartelaren egileak armarría ere kartelaren diseinura egokitu nahi badu, libreki egiten ahalko du, betiere ezaguterraza eta identifikagarria bada eta elementu guztiak egoki eta errespetuz irudikatuta badaude. Hauek dira elementuak:

- o Zilarrezko lehoi bat ibilian (hiru hanka lurrean eta aurrekoetako bat aurrera egiteko altxatuta), mihi eta erpe gorriak dituen.
- o Lehoiaren gorputzaren gainean, urrezko errege-koroa ireki bat.
- o Bi elementuak, lehoia eta koroa, hondo urdin ilunaren gainean.
- o Bi elementuak inguratuz orla moduan, hondo gorriaren gainean, Nafarroako kateak urre-kolorean.
- o Orla horren gainean, errege-koroa ireki bat urre-kolorekoa.

Armarriaren diseinua koloretan egin daiteke (deskribapenean adierazitako koloreekin), monokromo zurian, monokromo beltzean, edo proposatutako kartelarekin zerikusia duten tonalitateetan, betiere jatorrizko armariaren zentzua hutsaldu edo haren kontra egiten ez duen bitartean.

Lehiaketa garatu bitartean, elementu horien inplementazioan egon litezkeen akatsak zuzentzeko eskatzen ahalko du epaimahaiak. Horretarako, behar bezala sartu ez den nahitaezko elementuren bat aldatzea eska dezake. Egileak iradokitako aldaketa onartzeko askatasuna izanen du, baina ez onartzeak nahitaezko baldintzak ez betetzea ekarriko du.

Kartela baloratzeko epaimahaikideek honako puntu hauek aintzat hartuko dituzte:

- tipografiaren eta kartelaren diseinu orokorraren arteko lotura.
- Iruñeko armariaren diseinuen irudikapena baloratuko da, kartelaren arte-estiloari egokituta, betiere "Iruñeko armarría" apartatuan zehaztutako betekizunak irudikatzen diren bitartean.
- Udalak sanferminetan erabili ohi dituen formatuetara (programa ofizialaren azala, liburuxka zabalgarri horizontalak eta agertokietako olanak...) ongien moldatzen diren diseinuak, bai eta beste bitarteko digital batzuetara eta/edo digitalki hedatzeko miniaturretara zein beste marketin elementu batzuetara ere.

FORMULARIOA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

Formulariora www.pamplonaescultura.es webgunearen bidez sartu behar da, "Sanferminetako Kartel Lehiaketa" izenburuko esteka klikatuta, eta haren bidez zuzenean sar daiteke izena emateko formularioan eta, gainera, oinarriak kontsultatu.



Formularioa betetzeko, gaitutako lauki guztiak bete behar dira agertzen diren ordenan, kontuan hartuta izartxo batez markatutako eremuak nahitaez bete behar direla.

Goiburuko menuan, formularioa gaztelaniaz, euskaraz edo ingelesez betetzea hautatzen ahalko da.

Ondoren eremuak beteko dira, nahitaezkoak diren horiek (izartxo batez markatutakoak) kontuan hartuta:

1. Datu pertsonalak:

Egileen (pertsona bakarra edo kolektiboa) izena / Sozietate-izena, Abizenak / Ordezkaria, NAN, AIZ, IFK edo besterik, telefonoa eta helbide elektronikoa. Garrantzitsua da helbide elektronikoa baieztatzea, haren bidez amaituko baita izen-ematea, formularioa betetzean e-mailez bidaliko den esteka sakatuta.

2. Jaioteguna eta jaioterria:

- Data, Herrialdea, Autonomia Erkidegoa, Probintzia eta Herria. (Espainia).
- Data, Herrialdea (Espainiakoa ez bada)

3. Helbidea:

- Herrialdea, Autonomia Erkidegoa, Probintzia, Herria, Kalea, Ataria, Solairua (hautazkoa) eta Posta kodea
- Herrialdea eta helbidea (Espainiakoa ez bada).

4. Kartelaren datuak:

- Kartelaren lema.
- Kartelaren deskribapen laburra: Kartelaren kontzeptuaren eta osagaien garapen teorikoa, hala nola konposizioa, koloreak, tipografia eta sinbologia. Halaber, erabilitako teknikak eta tresnak xehatuko dira, adimen artifiziala (AA) erabili den ala ez eta zein modutan egin den adieraziz (labur eta sintetikoki. 200 karaktere, gehienez)
- Ibilbide profesionala: curriculum laburra (labur eta sintetikoa. 800 karaktere, gehienez)

5. Kartelaren irudia aurkeztea: Artxibo bakar bat erantsiko da kartelaren irudiarekin baldintza hauekin bat:

- Kartelak oinarri hauen 5. puntuan zehaztutako testuak eta Iruñeko armarrria eduki beharko ditu.
- Formularrak igoko den artxiboaren neurriak 820 x 1171 pixelekoak izanen dira, JPG formatuan aurkeztuko da (sistemak ez du onartuko beste luzapeneko artxiborik) eta gehienez ere 2 MB-ko tamaina izan beharko du.

Kontuan izan behar da 10 kartel finalistek, inprimatzen direnean, 1000 x 700 mm-ko formatua izanen dutela (bertikalean).



6. Lehiaketa honetara aurkeztutako kartelaren egilea dela adierazten duen eta obra hori originala eta argitaragabea dela eta kartela egitean ez dela AA osorik edo eskusiboki erabili aitorzen duen laukitxo sakatu beharko da.

Eremu guztiak bete ondoren, formularioa igortzeko, horretarako gaitutako botoia sakatu beharko da. Garrantzitsua da nabarmentzea izapide horrekin EZ dela izen-ematea amaitzen. Jakinaraziko zaizu MEZU ELEKTRONIKO BAT JASOKO DUZULA (datu pertsonalei buruzko 2. atalean emandako helbidean), eta horra bidaliko dizute formularioaren datuen laburpena. Mezu horretan ESTEKA bat egonen da. Hura sakatu beharko duzu BALIOZKOTU eta IZEN-EMATEA AMAITZEKO.

Hori eginda, bigarren eta azken mezu bat jasoko duzu, non BERRETSIKO BAITA zure parte-hartzea lehiaketan, kartelaren LEMArekin (4. atalean emanda), IDENTIFIKAZIO AGIRIarekin eta lehiaketan erreferentziazkoa izanen den PLIKA-ZENBAKIArekin batera. Mezu hori izanen da lehiaketan parte hartzeko egiaztagiria.

Halaber, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako bideetako edozein erabiltzen ahalko da.

Lanak aurkezteko epea deialdi honen laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den unetik aurrera hasiko da, eta 2024ko APIRILAREN 8ko 14:00etan amaituko. Soilik online aurkezten ahalko da, beraz, puntu honek debekatzen du Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen artikuluan aipatzen den beste edozein bideren bidez aurkeztea.

Iruñeko Udalak bermatzen du datu pertsonalen babesari buruzko indarreko araudia beteko duela, zeina Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan jasotzen baita. Halaber, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua beteko du pertsona fisikoen babesaz bezainbatean.

Lehiaketaren plataformara igotako irudiak udal-zerbitzarian egonen dira lehiaketak dirauen bitartean, harik eta lehiaketaren azken fasea amaitzen den arte, jendaurreko balizko erakusketa barne. Ondoren, sistematik ezabatuko dituzte, salbu eta 10 kartel finalistei dagozkienak, zeinak publikoki hedatuko baitira herritarrek bozka dezaten. Ondoren, Iruñeko Udalaren artxibo digitalean gordeko dira, lehiaketaren oinarrien 4. puntua beteko dela bermatzeko.

LEHIAKETA EBATZI AURRETIK EZIN IZANEN DA JENDAURREAN JAKITERA EMAN KARTELAREN EGILEA NOR DEN.



Lehiaketan parte-hartzea anonimoa da eta horrela mantendu behar da lehiaketaren fase guztietan. Hala, parte hartzaileek ezin izanen dituzte kartelen irudiak zabaldu (hautatuak izan edo ez), ezta egileak nor diren esan ere, harik eta kartel irabazlearen aurkezpen ofiziala egiten den arte.

Anonimotasun-betebeharrari lotutako oinarriak ez betetzea arau-hauste larritzat joko da.

Arau-hauste larri horri dagokion zehapenak, edizio honetatik bartertzeaz gain, 3 urtez lehiaketara ezin aurkeztea ekarriko du.

KARTELAREN DISEINUA EGITEKO ADIMEN ARTIFIZIALEKO (AA) TRESNAK ERABILTZEA

Kartela egiteko adimen artifizialeko sistemak erabiliz gero, kartelaren egileak adimen artifizialeko teknikak erabili dituela jakinarazi beharko du, AAk kartelaren formalizazioan zenbaterainoko esku-hartzea izan duen zehatzuz eta jabetza intelektualeko eskubideak errespetatzen direla bermatuz, datasetean gardentasuna bermatuz eta adimen artifiziala eta jabetza intelektuala arautzen dituen araudiak ezarritako gainerako betebeharrak betez.

Hori horrela, ezin izanen dute saririk jaso osorik eta eskusiboki adimen artifizial sortzaile bidez eginak diren lanek.

Saririk jasotzen ez duten lanak Udalaren bulegoetan berreskuratzen ahalko dira, ebazpena argitaratu eta bi hilabeteko epean. Epe hori igarota, Udalak jaso ez diren lanak suntsitzen ahalko ditu, betiere ebazpenaren kontrako errekurtsorik aurkeztu ez bada.

6.- EPAIMAHAIA.-

Epaimahaia Iruñeko Udalak izendatuko du, eta honako hauek osatuko dute:

- Epaimahaiburua:

Iruñeko Udaleko Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko zuzendaria.

- Epaimahaikideak: Sei izanen dira: Iruñeko Udaleko Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko Arte Plastikoetako teknikaria, eta diseinuaren, komunikazioaren eta arte plastiko eta ikusizko arteen arloetako bost profesional

- Idazkaria: Iruñeko Udaleko Kulturako, Jaietako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko langile publiko bat

Epaimahaiak 10 kartel finalista hautatuko ditu. Hautatutako kartel horien plika-zenbakiak Iruñeko Udalaren webguneetan (www.pamplona.es/eu eta) argitaratuko dira.

Lehiaketaren azken fasean, herritarrek hautatuko dute kartel irabazlea 10 finalista horien artetik. Horretarako, jendaurrean jarriko dira, hala digitalki, adierazitako webguneetan, nola fisikoki, baloratuak izan daitezen.



Iruñeko Udalak bere gain hartuko du kartel finalisten ekoizpena ikusgai jar daitezen. Horretarako hautatutako egileei eskatuko zaien artxiboa hartuko du oinarri. Egileek bereizmen handian entregatu beharko dute artxiboa (gutxienez 300 pixel/hazbete), eta ahal bada, bektorizatuta. Parte-hartzaile guztiek konpromisoa hartzen dute, hala eskatuz gero, Udalaren esku jartzeko beren kartela, 1000 x 700 mm-ko neurrian eta bertikalean ongi ekoiztea bermatzeko behar den bereizmen eta kalitatearekin.

Ondoren, herritarrek parte hartzeko prozesu bat hasiko da, gutxienez zazpi egunekoa, 10 kartel finalistak hedatu eta ikusgai jartzeko, non herritarrek gogokoen duten kartelaren alde bozkatzen ahalko duten horretarako gaitutako bitartekoen bidez (digitalki eta aurrez aurre).

Hala herritarrek parte hartzeko aldia nola bozketaren prozedura behar den unean eta moduan iragarriko dira.

Azkenik, herritarren boto gehien jaso dituen kartela izanen da sariaren irabazlea eta 2024ko sanferminak iragarriko dituena.

Organo eskudunari, hau da, Kulturako, Jailetako, Hezkuntzako eta Kiroleko Alorreko zinegotzi ordezkariari, aurkeztuko zaio sari-proposamena, horrek sari-ematearen gainean ebatz dezan. Modalitate guztietan, edozein sari eman gabe uzten ahalko da, baldin eta epaimahaiaren iritziz ezein lanek ez badu behar adinako meriturik edo kalitaterik.

Epaimahaiak accesiten bat proposatzeko aukera: BAI EZ ☐

7. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.-

Iruñeko Udala da arduradun botere publikoez baliatuz dirulaguntza kudeatzeko eta saria emateko xedez erabiliko diren datu pertsonalez. Ez da daturik lagako legeak hala aginduta izan ezik. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira– eta horiek ezabatzeko Erregistro Orokorrera (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Datuen tratamendu-zerrenda eta informazio osagarria www.pamplona.es/eu webgunean kontsultatzen ahal dituzu.

Sari-banaketaren irudiak Udalaren webgune korporatiboan eta sare sozialetan argitaratzen ahalko dira, eta hainbat komunikabidek zabaltzen ahalko dituzte.

8.- EBATZI ETA JAKINARAZTEKO EPEA.-

Ebatzi eta ebazpena jakinarazteko epea sei hilabetekoa izanen da, gehienez ere. Epea deialdi honen laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hortik aitzina hasiko da kontatzen.

Instrukzio-organoa dirulaguntza hau kudeatzen duen Alorreko Idazkaritza Teknikoa izanen da. Sariak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta eskatzaileei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean aurreikusitakoarekin bat.



Diru-laguntzak emateko ebazpena argitaratzeko ☐ **pharra:** BAI EZ
Baiezkoa bada, non argitaratu:

Dirulaguntzen Datu-base Nazionala, Iruñeko Udalaren Egoitza Elektronikoa eta Nafarroako
Aldizkari Ofiziala.

9.- KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK.-

Saria ordainduta, Iruñeko Udalak kartel irabazlea eskuratuko du, eta saritutako egileak (edo egileek) obra ustiatzeko eskubide guztiak emanen dizkio Iruñeko Udalari, berarendako bakarrik, mugarik gabeko epean eta mundu mailan, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testuategina onetsi zuen apirilaren 12ko 1/1993 Legegintzako Errege Dekretuak ezarritakoarekin bat.

Udalak egoki jotzen duen eta kartelaren hautaketarekin lortu nahi den helburua betetzeko ezinbestekoa den edozein modalitatetan ustiatzen ahalko du obra. Ustiapen-modalitateen artean, besteak beste, kartela edozein euskarritan erreproduzitzen ahalko du, ukigarri eta ukiezinetan, eta egoki jotzen duen hedabide guztietan jendaurrean argitaratzen ahalko du, baita digitaletan ere. Halaber, hirugarrenei baimena ematen ahalko die kartela erreproduzitu eta hedatzeko, baita helburu komertzialekin ere.

Kartel irabazlearen egileak (edo egileek) Iruñeko Udalak eskatzen dizkion beste formatu batzuetara egokitu beharko dute kartela, hainbat euskarritan hedatu ahal izateko. Gehienez ere zortzi egokitzapen egiten ahalko dira. Sariaren diru-zuzkidurak aipatutako lanak egitea barne hartzen du.

Diseinu horiek kartel irabazlea aurkezten denetik 2024ko ekainaren 15era bitartean eskatu, egin eta entregatu beharko dira.

Iruñeko Udalak lehiaketan parte hartu duten obrekin jendaurreko erakusketak antolatzen ahalko ditu, kartel guztiekin edo xede horretarako hautatutako karteekin, zehazteke dauden era, toki eta datetan.

Erakusketan ikusgai jarritako obren egileek ez dute inolako diru-ordainik jasotzeko eskubiderik izanen horren truke, baina erakusketan obren egileen izenak azalduko dira.

Lehiaketa honetan parte hartzen dutenek kartela lehiaketara aurkezte hutsagatik baimena ematen diote Iruñeko Udalari aurkeztutako obra jendaurrean hedatzeko, oinarri hauetan aurreikusten diren edozein jarduketan esparruan.

Lehiaketa garatzeko parte-hartzaileekin egin beharreko kudeaketa guztiak instrukzio-organismoak eginen ditu. Kudeaketa horietan anonimotasunari eutsiko zaio eta jasotako jarraibide guztiak bete beharko dira.

10.- ERREKURTSOAK.-



Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar haien lanekin parte hartzen dutenek oinarriak onartu eta horiei men egitea.

Lehiaketa honen garapenaren eta oinarri hauen interpretazioaren inguruko gatazkak oro organo emaileak ebatziko ditu.

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko hartzen ahal diren administrazio-ebazpenen aurka errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organismoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi- errekurtsioa, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean.

Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.